

# Jean-Baptiste Etxarren-en hilberri txostena (1928-2020)

DIRASSAR, Janbattit  
Ohorezko euskaltzaina

Agur bero-bero bat Donostian bilduak zirezten guzieri. Nihaurek ere nahiko nuen segur zuekin izan, baina, eta barkatu otoi, Ziburutik arras guti ateratzen naiz, ez izurrite tzar horrengatik baitezpada, nahiz hori ere hor dugun, baina belaun batetako artrosiak tratatzen nauelakotz gero eta gehiago. Baina xo!, ez dut besterik erranen jasaiten dutan zailtasun hortaz, badakit asko eta asko ni baino makurrago dabilzala. Ezinbestean ez naiz beraz Donostian, alta aski maite dutalarik hiri hori, bai eta Orio, Zarautz, Zumaia eta oroz gaineratik Getaria, bere saguarekin...

Behar dizuet goraiatu Janbattitt Etxarren euskaltzale guziz suharra, edo hobeki erraiteko Janbattitt Etxarren-Lohigorri, amaren aldeko izena ere sartuz, gauza bat ez duguna aski egiten Iparraldean. Janbattitt Etxarren-Lohigorri iaz zendua da Donibane Garazin, haren ehorzketak urtarrilaren 31n iragan ziren Auritzen, emaztea, Hilaria, lau haurren ama, 2010ean zendua, hangoa baitzuen. Bera Donazaharren sortua zen 1928an, irailaren 26an, etxeondoa zuelarik Uharte-Garaziko Etxarrean. Deitura ere handik heldu.

Hitz xoil batez erran behar banu nolako gizona ginuen, erran nezake biziki erro azkarrak zituela. Erro batzuk berenaz azkarrak, eta bera alde bat ari oraino heien azkartzerat. Ikasketa ederrak eginik gazte denboran, beti segitzen zuen ikas eta ikas, lehiatuz ikasia zuen hura partekatzerat bere bidean kausitzen zituen guziekin. Ez espantuka, baina adiskidetasunez. Maiorga ikastegian izan zen erakasle, gaztelera erakatsiz, eta gero han berean urte askoz zuzendari. Denek laudatzen zuten haren lana, denek ikusten baitzuten nolako sail baliosa zeraman. Hein bat larderiarekin orobat, batzuk hala zioten behin, baina ikastegi handi batean ez ote zira galdua ez baduzu larderia poxi bat agertzen?

Erakasle arraroa, ez da dudarik, bainan bestalde ere asko sailetan ausart eta trebe. Euskal Herria maitez, eta bereziki Nafarroa. Mugaren bi aldeetan, xoko gehienak ezagutzen zituen, bazter ederrak preziatuz eta jendearekin zernahi harreman ukanez. Historiari buruz egin ditu gaitzeko ikerketa baliosak, ainitz baliatu direnak Nafarroa Zaharraren Adixkideak izeneko elkartean, frantsesez “Amis de la Vieille Navarre”. Lehengo gertakari zonbat ez ditu arta handiarekin aztertu, Konpostelareteko beilariak gogoan, edo karlistada delakoak, eta geroztikako gorabehera frango ere, hala nola, 40etako gerla denboran alemaneri eskapatu nahi zirenen laguntzeagatik, beren bizia irriskatuz ibilki ziren mugalari atrebituak. Gai hortaz hitzaldi bat bazuen ere egina ez hain aspaldi, 2018an. Historiaren arrangura hori bazuen jadanik arras gaztea zelarik ere, eta ez dute ahantzia hor gaindi nolako ikerlan aberatsa plazaratu zuen, lehen saria lortuz, Zangozan muntatu zirelarik fama handiko lore-jokoak. Karia hortarat molde onenean oroitarazten zuela nor izana zen Juan de Huarte hamaseigarren mendeko humanista handia, bera ere sortzez garaztarra.

Ikerketa sakonak akulatu ditu lehengo bizimoldeez, lehengo lanez, lehengo besta, ikusgarri eta gaineratikoez. Bai eta eragin zabala ukan duten asko jenderen biziaz.

Urteak jin eta urteak joan, Janbattitt-Etxarren-Lohigorri beti ari izana da nafartar guzien arteko elkartasunaren sustatzaile, gisa hartako harremanak ukanez bereziki Iruñearekin.

Historiaren axola handi bati josia bazaukan jendetasun argi eta sano baten grina, bere giristino fedearen argitarat. Ez dugu ahantziko euskal ondarea zoin maite zuen, ez ahantziko ere zoin idazle fina ginuen, euskaraz ala frantsesez berdin trebe, gaztelera ere ba. *Herria* astekariari ere igortzen zizkion lan asko biziki interesgarriak, eta bistan da Euskaltzaindiak ere etzuela ustegabetarik hartua bere urgazle bezala, gisa hartako merezimenduak ba-eta...